



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

2013ko deialdia **“Giza eskubideak eta sorkuntza artistikoa”**

**Antolatzaileak: Garapenean Laguntzeko Zerbitzua eta
Montehermoso Kulturunea**



ATARIKOA

Gasteizko Udalaren 201-2013ko Garapenerako Lankidetzaren Plan Zuzentzaileak "hirian elkartasunaren kultura sustatzen laguntzea, garapenerako lankidetzaren eta hezkuntzaren bidez", du lehen helburu, eta garapenean sentiberatzea zein hezteko, garapenerako bidean diren herrialdeetako errealitatea ezagutu eta munduan dauden pobrezia zein desberdintasunen arrazoiaren gainean kontzientzia hartu behar dela jasotzen du.

Hori lortuko bada, errealitatea ulertzeko eta herritarrek gure bizimodu estiloa zalantzan jarri eta jokabide aldaketa sustatuko duen kontzientzia kritikoa beregana dezaten laguntzeko gakoak eskaini nahi dira, hainbat ekintza eta programaren bidez. Azken finean, pertsona gogotsu eta arduratsuak, hainbeste gizakik bizi duen bidegabekeriaren zein desberdintasun egoeren aurrean axolagabe jokatu ez eta mugitzen direnak.

Giza eskubideen inguruko laguntza eta babes emateari dagokionez, Gasteizekin harreman berezia duten herrialdeetan hainbat jardun burutu da azkenengo urteetan, batzuk giza eskubideak babesteko deialdiaren baitako proiektuak finantzatzeko emandako laguntzaren bidez, beste batzuk, berriz, bestelako hitzarmen edo ekimenen bidez.

Planeta osoan milioika gizaki eragiten dituzten giza eskubideen urraketa larriak gero eta ezagunagoak dira mundu globalizatu eta elkarloturikoan, hedabideei eta gizarte sareei esker. Gainera, hegoaldean ematen den funtsezko eskubideen urraketak ondorio zehatzak ditu gure gizartean bertan.

Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak eta Montehermoso kulturuneak sorkuntza artistikoa, adierazpidea (plastikoak, ikus-entzunezkoak, antzezte arteak,...) edozein dela, egungo munduko giza eskubideen egoera zein den agerian jartzeko tresna egokia izan daitekeela uste dute.

Testuinguru horretan, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala eta abenduaren 10ean izaten den haren oroipen eguna erreferentzia hartuta, GGKEk egiten duten lana zabaldu eta herritarren sentiberatzea ahalbidetuko duen sorkuntza artistikoko proiektua hautatzeko deialdia abian jarri dute Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak eta Montehermoso kulturuneak. Giza eskubideen babesaren eta defentsaren esparruan, nazioarte mailako elkartasunarekin zerikusia duten gizarte eragileak eta gure hiriko kultura-eragileak lankidetzan arituko diren proiektua izan beharko da.

OINARRIAK

1. DEIALDIAREN XEDEA

Hainbat kultura eta/edo arte ekintzen bidez, munduan dagoen giza eskubideen egoeraren gainean, bereziki, Udalarekin harreman egonkor eta jarraitua duten herrietan –bertan giza eskubideak babesteko eta garapenerako proiektuak burutzen



dituelako— dagoen egoeraren gainean, gogoeta eta azterketa kritikoa egiteko markoa sortuko duen **proiektua hautatzea** du xede Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren eta Montehermoso kulturunearen deialdi honek.

Malgutasuna nahiz diziplinen artekoa ditu oinarri deialdiak, eta ondoren adierazitakoak ahalbidetu nahi ditu:

- nazioarte mailako elkartasunarekin loturiko erakundeen edo gizarte-taldeen eta sorkuntza artistikoaren adierazpenetako edozeinekin (plastikoak, ikus-entzunezkoak, antzezte-arteak) zerikusia duten kultura-agenteen arteko harremana.
- planetan zehar ematen diren giza eskubideen urraketarekin loturiko egoeren gainean herritarrak sentiberatzea, sorkuntza artistikoaren bidez, bidegabekeria horien aurrean gogoeta eta jarrera kritikoa garatzeko asmoz.
- Gasteizko gizarte-erakundeek nazioarte mailan eta elkartasunaren zein giza eskubideen testuinguruan burutzen dituzten ekintzei buruzko hurbileko informazioa, benetakoa, helaraztea herritarrei.

Gasteizko Udalak kontratatuko du hautatzen den proiektua, udal aurrekontuen 1150-4630-22799 “Kanpoko beste zenbait lan” izeneko partidaren kontura.

Aurkezten diren proiektuen artean batek ere ez badu nahiko puntuaziorik lortzen, esleitu gabe geratu ahalko da deialdia.

2. ESKATZAILEEN BETEBEHARRAK

Jarduteko erabateko gaitasuna duten eta sektore publikoak kontratatuzko debeku-egoeran ez dauden entitate, erakunde, elkarte, gizarte- eta/edo kultura-agenteeek aurkeztu ahalko dituzte proiektuak.

Entitate eskatzaileak giza eskubideen inguruko sentiberatzearen esparruan ekintzaren bat gauzatu izana egiaztatu beharko du, bai eta deialdi honetan jasotzen diren baldintzak bete ere.

3. PROIEKTUEN ETA PARTE-HARTZAILEEN EZAUGARRIAK

3.1. Alderdi orokorrak

Proiektuan honakoek parte hartu edo lagundu beharko dute, gutxienez:

- Gasteizen nazioarte mailako elkartasunaren eta giza eskubideen babesaren esparruan lan egiten duen erakundea eta
- kultura-erakunde, -elkarte edo -agentea.

Generoaren analisiarekin loturiko alderdiak jaso beharko ditu proiektuak, lantzen diren giza eskubideen inguruko arazok emakumezkoak berariaz nola eragiten dituzten helarazteko xedez.

Aurkezten den proiektuak sortu berria izan beharko du eta deialdian ezarritako epeen barruan garatu beharko.

Hautatzen den proiektua Montehermoso kulturunean aurkeztuko da, jendaurrean, 2013ko azaroaren 15etik 2014ko urtarrilaren 12ra.



Beste laguntzak ere jaso ahalko ditu proiektuak, baina horrela izanez gero, aurkeztu beharreko agirietan adierazi beharko da.

Jarraipen batzordeak, kasua denean, hautatutako proiektuaren baitako aldaketak gomendatu ahalko ditu, betiere, aurrekontua eragiten ez badute.

3.2. Edukiak

Honako gai eta edukiek izango dute lehentasuna:

- Kolektibo zehatzek edo populazioak, oro har, pairatzen duten giza eskubideen urraketa egoerarekin zuzenean loturikoa izan beharko da **gaia**; besteak beste, honako kolektiboak: babesgabezia eta indarkeria jasaten duten haurrak, gatazka armatuen ondorioak (halabeharrezko lekualdatzeak, babeslekua, sexu-erasoak, etab...) eta gizaldeko krisiak jasaten dituztenak, osasun, hezkuntza eta edateko uraren zein oinarrizko elikagaien hornitze sistemetarako sarbidea ez dutenak, bidegabeko askatasungabezia eta pertsonen salerosketa pairatzen dutenak, jazarpena jasaten dutenak arraza, erlijio edo sexualitate-aukera dela eta.
- Azken aurreko hiru urteetan (2010, 2011 eta 2012) Gasteizko Udalak eta/edo hiriko gizarte erakundeek esku hartu duten eta giza eskubideekin zerikusia duten proiektu eta arazoak.
- Emakumezkoak bereziki eragiten dituzten giza eskubideen urraketarekin loturiko egoerak.

4. ZENBATEKOA ETA ORDAINKETA

Deialdiak **18.000 + BEZa (% 21)** euroko diru-hornidura izango du, hain zuzen, Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren 2013ko aurrekontuko 1150-4630-22799 "Kanpoko beste zenbait lan" izeneko partidaren kontura.

Hornidura horren baitan sartuko dira proiektua ekoiztu, gauzatu eta ondoren Montehermoso kulturunean bera aurkeztu eta zabaltzeko ekintzek eragindako gastuak.

Ordainketa honela egingo da:

- % 60 (10.800 euro + BEZa) hitzarmena sinatzen denean,
- % 40 proiektua gauzatzen amaitutakoan.

Bi kasuetan dagokion faktura aurkeztu beharko da.

Montehermoso kulturuneko espazio eta tresneria teknikoari, baita aholkularitza zein giza baliabideei ere, dagokiena gehitu egingo zaio zenbateko horri.

5. BEHAR DIREN AGIRIAK

Agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Eskabide orria, beteta.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduak daudela jasotzen duen egiaztagiria, bai eta sektore publikoak kontratatzeko debeku-egoeran ez dagoela jasotzen duena ere.



- Proiektu-egilearen edo entitate titularraren nortasun-agiriaren –edo baliokidearen– fotokopia.
- Proiektu-egilearen edo entitate titularraren ibilbidea/curriculum.
- Beste batzuekin batera aurkeztuz gero, entitatearen eta/edo ordezkari den pertsonaren ibilbide/curriculum eta datuez gain, harekin batera parte hartzen duten agenteen informazio osoa ere aurkeztu beharko da.
- Proiektuaren dosierra, hauexek biltzen dituena:
 - Proiektuaren izenburua eta garapena.
 - Behar teknikoak.
 - Gauzatze egutegia.
 - Gutxi-gorabeherako aurrekontu xehatua –finantziario propioa izan lezaketen kontzeptuak zehaztu beharko dira.

Atal honetan zehaztutako agiriak jasotzen ez dituen eskabiderik egonez gero, errekerimendua egingo zaio eskatzaileari, hamar eguneko epean eskabidea osatu ahal dezan. Horrela egin ezean, eskaera bertan behera utzi dela joko da.

6. AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

Proiektuak aurkezteko epea **2013ko apirilaren 29tik ekainaren 28ra** artekoa da.

Honela bidali ahalko da: **eskuz edo postaz**, Garapenean Laguntzeko Zerbitzura (Santa Maria kalea, 11, 01001, Gasteiz) edo Montehermoso kulturunera (Frai Zacarias kalea, 2, 01001, Gasteiz). **Postaz bidaltzen bada**, dena delako posta-bulegoko erregistroan jarritakoa joko da aurkezte datatzat.

Posta elektronikoz bidaltzen bada: eskatutako agiriak mmartinezml@vitoria-gasteiz.org helbidera bidal daitezke. Posta elektronikoz egindako bidalketetan agiri osagarriak erantsi ahalko dira, pdf formatuan, zip batean konprimitua, beharrezko bada.

Eskabideak eta erantsitako agiriak jasotzea: Eskabideak eta erantsitako agiriak jaso direla egiaztatzeko, posta elektronikoa bidaliko zaio eskatzaileari, posta elektronikoz eta postaz jasotako bidalketen kasuan. Eskuz aurkeztutakoen kasuan, berriz, jaso izanaren agiria emango da. Egiaztapen hori jaso ezean, agiriak jaso ez direla ulertuko da.

7. PROIEKTUAK BALIOZTATZEA ETA HAUTATZEA

Honako hauek osatuko dute hautatze batzordea:

- Araceli de la Horra, Kultur Zentroetako burua.
- Aitor Gabilondo, Garapenean Laguntzeko Zerbitzuko burua.
- Mikel Martínez, Garapenean Laguntzeko Zerbitzuko teknikaria.

Garatuko den proiektua hautatzeko, aurkeztutako proposamenak alderatu egingo dira, balioztatzeko irizpide hauek aintzat hartuta:



IRIZPIDEAK	PUNTUAK
Edukiak	4
• lehentasunezko gaiekiko lotura.	1
• Azken aurreko hiru urteetan Gasteizko Udalak eta/edo hiriko gizarte erakundeek esku hartu duten eta giza eskubideekin zerikusia duten proiektu eta arazoekiko lotura.	2
• emakumezkoak bereziki eragiten dituzten giza eskubideen urraketa.	1
Proiektuaren interesa eta kalitatea	6
• giza eskubideen ikuspuntutik.	3
• artearen ikuspuntutik.	3
Proiektuaren koherentzia eta bideragarritasuna, aurkeztutako txosten eta agiri osagarriekin bat, planteatutako helburuei, gauzatzeko denborari eta baliabideei dagokienez	2
Proposamenak gizartean izango duen inpaktua	3
Prozesuan zehar gizarte- zein kultura-eragileen lankidetzaren harremana	3
Eskatzailearen/proiektu-egilearen ibilbidea, sentiberatzeari dagokionez	2
PUNTUAK, GUZTIRA	20

Baremazioan argi geratzen denez, aintzat hartuko da, bereziki, proiektua landu eta gauzatzeko prozesu osoan zehar antolatzaile taldeen edo sareen eta/edo gizarte- eta kultura-eragileen artean ematen den lankidetzaren maila.

Hautatze batzordeak eskatzaileekin elkarrizketatu ahalko da edo haiei buruzko informazio osagarria bildu, aurkeztutako proposamenak hobeto ebaluatzeko xedez.

Proiektuetako batek ere ez badu eman daitezkeen puntuaren % 50 lortzen, deialdia esleitu gabe utzi ahalko du hautatze batzordeak, zati batean edo osotasunean.

8. DEIALDIA ERABAKITZEKO EPEA

Deialdi honetako 7. puntuan jaso diren irizpideekin bat aurkeztutako eskabideak eta agiriak aztertu eta ebaluatuko ditu hautatze batzordeak.

Behin eskabideak balioztatu ondoren, emaitzaren berri emango du batzordeak, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunetik kontatua, gehienez, hilabeteko epean.

Idatziz emango da erabakiaren berri.



9. JARRAIPEN BATZORDEA

Jarraipen batzordea eratuko da, proiektua behar bezala garatzen dela ebaluatzeko, honakoek osatua: Araceli de la Horra (Montehermoso kulturunea), Aitor Gabilondo eta Mikel Martínez (Garapenean Laguntzeko Zerbitzua).

Baldin eta uste bada lana ez dela deialdian aurreikusitako moduan eta epeetan gauzatzen ari, besterik gabe, laguntza kendu ahal izango da, batzordeak txostena egin ondoren.

10.ONURADUNAREN BETEBEHARRAK

Deialdi honetan hautatutako proiektuaren titular den entitate edo pertsonak konpromiso hauek hartuko ditu:

- a_ Hautatze batzordearen erabakia onestekoa.
- b_ Proiektua deialdian zehaztutako epean eta aurreikusitako baldintzekin bat garatzekoa.
- c_ Hamar egunez, gehienez, esleipena onartu duela idatziz berrestekoa. Garapenean Laguntzeko Zerbitzua hautatutako proiektuaren titular edo titularrekin batera izenpetuko du kontratua non harremanerako zerbitzuak eta baldintzak zehaztuko baitira.
- d_ Gasteizen edo Araban bulegoa izatekoa, proiektua gauzatzen den bitartean, proiektua gauzatzearen inguruko koordinazioa errazteko.
- e_ Aurkeztutako proiektuan aldaketarik bada horren berri idatziz ematekoa.
- f_ Aurkeztutako proiektuaren jabetza intelektualaren eskubideak izatekoa.
- g_ Proiektuen berri era egokian emateko beharrezkoa den informazioa eta agiriak ematekoa, beharrezkoa izanez gero, proiektuaren barruan ekoiztutako irudiak publikoki erreproduzitzeko eta jakinarazteko eskubidea lagatzekoa Gasteizko Udalarari.
- h_ Programa amaitu ondoren, egindako lanaren oroit-idazkia –edukiak kontratuan zehaztuko dira– aurkeztekoa, bi hilabeteko epean.

11.AGIRIAK ITZULTZEA

Hautatu ez diren proiektuak itzuli egingo dira, erabakia jakinarazten den egunaren ondorengo 30 hamar naturaletan, eskatzaileak aurretik horrela eskatu badu. Denbora hori pasa ondoren txikitu egingo dira proiektuak

12.OINARRIAK INTERPRETATU ETA ONARTZEA

Oinarri hauek interpretatzean sortzen diren zalantzak jarraipen batzordeko kideek ebatziko dituzte.

Deialdi honetan parte hartzeak oinarriak oso-osorik onartzen direla esan nahiko du. Oinarri hauetakoren bat edo laguntzak emateko baldintzetakoren bat ez betetzea nahikoa arrazoi izango da kontratua bertan behera geratzeko, galda litezkeen bestelako erantzukizunak gorabehera.



Informazio gehiago:

Zerbitzua	Harremanetarako	Tel.:	E-posta
Garapenean Laguntzea	Aitor Gabilondo	945 16 15 77	agabilondo@vitoria-gasteiz.org
	Mikel Martínez	945 16 16 54	mmartinezml@vitoria-gasteiz.org
Montehermoso kulturunea	Araceli De La Horra	945 16 18 29	adelahorra@vitoria-gasteiz.org